

1. BEZERO SEGMENTUA

6 pisu edukiko ditugu, eta pisu bakoitzean ondo bereiziko ditugu adin taldeak gure bezeroak eroso sentitzeko, horietako 2 unibertsitatean ikasten ari diren ikasleentzat izango dira, horregatik Antiguon egongo dira, hemen daude eta unibertsitate gehienak, horrela oso erraz mugituko dira leku batetik bestera. Beste lau pisu lanean ari diren pertsonentzako izango dira, horietako bi 35 urtetik beherakoentzat izango dira, hauek Antiguon eta Anoetan egongo dira, eta beste biak 35 urtetik gorakoentzat izango dira, bat Grosen eta bestea Antiguon kokatuko ditugu. Hala ere, gure bezeroen eskaeraren arabera prest egongo gara etxearen kokapena aldatzeko. Adibidez: 35 urtetik gorakoak Anoetan nahiago badute etxea, aldatu ahal izango dugu beraiek hor bizi daitezen.

Aldi berean, gure helburua bezeroak gustora biziitzea da, hori lortzeko ideia aproposena hurrengoa da: Galdetegi bat bidaliko diegu, han beraien burua ondo aurkeztu beharko dute, hau da, beraien adina, sexua, ea ikasleak diren edo lanean ari diren, ea etxe mixto baten bizi nahi duten edo bakarrik beraien sexuak jendearekin, eta bukatzeko oso garrantzitsua iruditzen zaigu beraien gustuak eta egunerokoan egiten dituzten jarduerak azaltzea, edo dituzten hobiak.

Bukatzeko, irizpide guztiak kontuan hartuta, ahalik eta hoberen moldatuko dugu etxe bakoitza, horrela lortuko dugu pixukideen artean harremanak onak izatea, giro ona egotea etxean eta baita beraien artean lagunak izatea ere.